



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2019IPLE0011

Eguna: 2019-11-26

Ordua: 19:00 – 19:40

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Aintzane Barandiaran Ezponda..... Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena..... Astigarragako EH Bildu
- Roxali Fernandez Rodriguez Astigarragako EH Bildu
- Esti Neira Martinez Astigarragako EH Bildu
- Aitor Güemes Oyarbide Astigarragako EH Bildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz Astigarragako EH Bildu
- Juan Martín Arregui Sagües.....Astigarragako EAJ-PNV (8. eta 9. gaiak izan ezik)
- Nerea Zusberro Alberro.....Astigarragako EAJ-PNV
- Antton Costa Casco.....Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco.....Astigarragako EAJ-PNV
- Mikel Durán Gonzalo.....Udal-talde Sozialista

Bertaratu ez direnak

- Urkiri Salaberria Gracia.....Astigarragako EAJ-PNV

Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezeko udal kontu-hartzailea

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N°	ORDEN DEL DIA
2019ko urriaren 29ko akta onartzea.	1	Aprobación del acta de 29 de octubre de 2019
2020ko zerga fiskalak	2	Ordenanzas Fiscales 2020
Kreditu aldaketa: kreditu transferentzia.	3	Modificación de crédito: transferencia de crédito.
Kontratazio-espedientea: Hiri Antolamenduko Plan Orokorraidazteko zerbitzua.	4	Expediente de contratación: servicio de redacción del Plan General de Ordenación Urbana.
Alokairu sozialeko etxebizitzaren zozketarako oinarriak.	5	Bases para el sorteo de viviendas en alquiler social.
Astigarraga-Hernani eskola kirola eredua.	6	Modelo de deporte escolar de Astigarraga-



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

		Hernani.
Astigarragako Udalak eraso matxisten aurrean jarduteko eta erantzuteko tokiko protokoloa	7	Protocolo local de actuación y respuesta del Ayuntamiento de Astigarraga ante las agresiones machistas
EHBildu taldearen mozioa emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunaren ingurukoa.	8	Moción de EHBildu sobre el día internacional para la eliminación de la violencia machista contra las mujeres.
EHBildu taldearen mozioa haurren eskubideen aldarrikapenaren egunaren ingurukoa	9	Moción de EHBildu sobre el día de la reivindicación de los derechos de la infancia
EHBildu taldearen mozioa 2019ko euskararen nazioarteko egunaren ingurukoa	10	Moción de EHBildu sobre el día internacional del euskara del 2019.
EHBildu taldearen mozioa Boliviako kolpe estatua salatze	11	Moción de EHBildu para denunciar el golpe de Estado de Bolivia.
Informazio, galdera eta eskariak.	12	Información, ruegos y preguntas.

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2019ko urriaren 29ko akta onartzea.

Mikel zinegotzia abstenitu egin da aurreko bileran egon ez zelako, gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

1.- Aprobación del acta de 29 de octubre de 2019

El concejal Mikel se ha abstenido por no estar presente en la reunión anterior, el resto, en cambio, vota a favor, por lo que se aprueba el acta.

2.- 2020ko zerga fiskalak

Alkateak ogasun eta ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Honako alegazioak onartzea:

- Ordezko kontu-hartzaileak aurkezturikoa.
- EHBilduk aurkeztutako alegazioa, "Etxebizitzen azterketa teknikoari" buruzko 4. zenbakia izan ezik.

Bigarrena.- EAJ-PNV taldeak aurkeztutako alegazioa ezestea.

Hirugarrena.- Onartu diren alegazioekin, 2020ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko den zerga-ordenantzaren Testu Bategina, behin betirako onartzea.

2.- Ordenanzas Fiscales 2020

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

Primero.- Estimar las siguientes alegaciones:

- Alegación presentada por la interventora accidental.
- Alegación presentada por EHBildu, salvo la número 4 relativa al "estudio técnico de viviendas".

Segundo.- Desestimar la alegación presentada por el grupo EAJ-PNV.

Tercero.- Con la incorporación de las alegaciones estimadas aprobar definitivamente el texto



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Laugarrena.- Zerga-ordenantzaren Testu Bategina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Nerea zinegotziak hitza hartu eta aurreratu du kontra bozkatuko dutela, batetik, ez daudelako ados %2ko igoerarekin, igoera hori aplikatu aurretik aztertu egin behar zelako hainbat murrizketa egiteko aukera, eta bestetik, ez daudelako ados udal gobernu taldeak planteatuko alegazio batzuekin, esaterako, etxe hutsen eta lur mugimenduen inguruan aurkeztutakoa.

Alkateak erantzun dio azken urteetan Udalak ez duela igoerarik aplikatu, eta guzti horiek KPIaren %6a baino gehiago direla. Gaineratu du zergak igotzea beharrezkoa dela udalak eskaini behar dituen zerbitzuak emateko, dena den, %2ko igoera ez dela asko eta gainera hobari sistema bat ezarri dela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **onartu** da aldeko 8 botoekin (*Astigarragako EH Bildu eta Udal talde Sozialista*) eta kontrako 4 botoekin (*Astigarragako EAJ-PNV*)

3.- Kreditu aldaketa: kreditu transferentzia.

Alkateak ogasun eta ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Hasierako onarpena ematea 2019-KALD-0008 kredituen aldaketari (**784.185,44 €**).

Bigarrena.- Espedientea 15 egun balioduneko aldian jendaurrean erakusgai jartzea, alegazioak egiten ez badira espedientea behin betiko onartuta geratuko dela azalduz, beste akordio baten beharrik gabe.

Alkateak azaldu du kreditu aldaketa bi gastuei aurre egiteko dela, Arrobitxuloko igogailua eta DBHko proiektua.

Nerea zinegotziak adierazi du harritura dagoela espedientearekin, 2020ko aurrekontuan ez delako

refundido de las ordenanzas fiscales que entrarán en vigor el 1 de enero de 2020.

Cuarto.- Remitir el texto refundido de las ordenanzas fiscales al Boletín Oficial de Gipuzkoa para su publicación.

La Concejala Nerea toma la palabra y adelanta que votarán en contra porque, por un lado, no están de acuerdo con el incremento del 2%, ya que antes de aplicarlo había que estudiar la posibilidad de realizar una serie de reducciones, y por otro, porque no están de acuerdo con algunas alegaciones planteadas por el equipo de gobierno, como la presentada en relación a las viviendas vacías y los movimientos de tierras.

El Alcalde le contesta que el Ayuntamiento no ha aplicado ningún incremento en los últimos años y que todos ellos suponen más del 6% del IPC. Añade que la subida de impuestos es necesaria para prestar los servicios que debe dar el ayuntamiento, pero que el incremento del 2% no es mucho y que además se ha establecido un sistema de bonificaciones.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen con 8 votos a favor (*Astigarragako EH Bildu y Grupo Municipal Socialistas*) y 4 en contra (*EAJ-PNV Astigarraga*).

3.- Modificación de crédito: transferencia de crédito.

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

Primero.- Proceder a la aprobación inicial de la modificación de créditos 2019-KALD-0008, de importe **784.185,44 €**.

Segundo.- Someter el expediente a información pública por el plazo de 15 días hábiles, reseñando que caso de no formularse alegaciones quedará el expediente aprobado definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.

El alcalde explica que la modificación de crédito es para hacer frente a los dos gastos, el ascensor de Arrobitxulo y el proyecto de la ESO.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

DBHrako kontusailik aurreikusi. Eta alkateari galdetu dio jauriaritzarekin nola dagoen gaia, horiek esan ohi dutelako DBH jartzeko erositako terrenoan ezin dela ekipamendu hori jarri.

Alkateak erantzun dio uztailean bilera bat egin zutela eta asmoa dela urte bukaeran beste bat egitearena. Azaldu du lehendabiziko bileran Hezkuntzak ez zuela esan ezin zenik ekipamendua aurreikusitako kokapenean jarri, irisgarritasun arazoak egon daitezkeela baizik, baina udalak azterketa tekniko egiteko konpromisoa hartu zuela. Eta gaineratu du aztertzen ari direla argindar-sarea lurperatzea.

Mikel zinegotziak hitza hartu eta komentatu du DBHren gaia nola zegoen galdetzeko asmoa zuela, baina dagoeneko erantzun dela eta alde bozkatzeko asmoa duela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **ahobatez onartu** da.

La Concejala Nerea manifiesta su sorpresa por el expediente, ya que en el presupuesto 2020 no se contempla una partida para la ESO. Y pregunta al alcalde cómo está el tema con Educación, ya que señalan que en el terreno adquirido para la ESO no se puede poner ese equipamiento.

El alcalde le responde que en julio se celebró una reunión y que la intención es que a finales de año se celebre otra. Expone que en la primera reunión Educación no dijo que no se podía poner el equipamiento en la ubicación prevista, sino que podía haber problemas de accesibilidad, pero que el ayuntamiento se comprometió a realizar un estudio técnico. Y añade que se está estudiando soterrar la red eléctrica.

El concejal Mikel toma la palabra y comenta que tenía intención de preguntar cómo estaba el tema de la ESO, pero que ya se ha respondido y adelante que va a votar a favor.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

4.- Kontratazio-espeditentea: Hiri Antolamenduko Plan Orokorraidazteko zerbitzua.

Alkateak ogasun eta ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Zerbitzu-kontratu honetarako prestatu diren baldintza plegu teknikoak eta administratiboak onartzea.

Bigarrena.- Kontratazio espeditentea onartzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea.

Alkateak azaldu du plana egiteko talde disziplinarra nahi dela, eta fase bakoitzerako epe bat ezarri bada ere, ezin dela ziur jakin kontratua gauzatzeko epea zein izango den, baina 4 urtetik gorakoa izango dela.

Nerea zinegotziak hitza hartu eta aldeko botoa emango dutela aurreratu ondoren, adierazi du plana egiterakoan generoaren eta euskararen perpektiba kontuan hartzea oso egokia iruditzen zaiela, baita ere egingo den hirugarrena izango dela eta irrikitan daudela ezagutzeko EHBilduren

4.- Expediente de contratación: servicio de redacción del Plan General de Ordenación Urbana.

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

Primero.- Aprobar los pliegos de condiciones técnicas y administrativas que se han elaborado para el contrato de servicios.

Segundo.- Aprobar el expediente de contratación y dar inicio al procedimiento de adjudicación

El alcalde explica que se pretende contar con un grupo disciplinar para elaborar el Plan, y que aunque se ha establecido un plazo para cada fase, no se puede saber a ciencia cierta el plazo de ejecución del contrato, pero que será mayor que 4 años.

La concejala Nerea toma la palabra y tras adelantar que votarán a favor, señala que les parece muy adecuado que se tenga en cuenta la perspectiva de género y el euskara en la



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

herri proiektua.

Andoni zinegotziak erantzun dio bakarria egin eta onartu dela, eta dokumento hori egin zela herritarrei bizkarra ematen, baina oraingoan, berriz, herritarren onura begiratu nahi dela eta prozesuan parte hartzera gonbidatuko zaiela.

Nerea zinegotziarentzat parte hartzea bermatzea pozgarria da, baina bere hitzetan egungo gizarte-egoera ez da berdina. Adierazpen horrek Andoni eta Nerea zinegotziaren arteko eztabaida sortu du, lehendabizikoarentzat udalak onartuta duen HAPO dokumentu bakarria idatzi zelako partehartzaile politiko bat ilegalizatua zegoenean.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

elaboración del plan, y también que va a ser el tercero que se elabore y que están ansiosos para conocer el proyecto de pueblo que quiere EHBildu.

El Concejal, Andoni, responde que sólo se ha elaborado y aprobado uno, y que se hizo dando la espalda a la ciudadanía, pero que esta vez se quiere mirar el beneficio de los ciudadanos e invitarles a participar en el proceso.

Para la concejala Nerea es satisfactorio garantizar la participación, pero según ella la situación social actual no es la misma. Esa declaración ha generado un debate entre el concejal Andoni y Nerea, dado que para el primero el único documento del PGOU aprobado por el ayuntamiento se redactó cuando un partido político estaba ilegalizado.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

5.- Alokairu sozialeko etxebizitzaren zozketarako oinarriak.

Alkateak Hirigintza, etxebizitza, ingurumen eta mugikortasuneko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehenengoa.- Aiotzategi Kalea 4. atarian dauden etxebizitza publikoak alokairu sozialeko erregimenean esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea.

Bigarrena.- Oinarriak GAOn, udal-iragarki-taulan eta lurraldean hedapen handiena duen edo duten egunkarietan argitaratzea, eskabideak aurkezteko epea 2020ko urtarrilaren 31ra arte luzatuz.

Hirugarrena.- Zabalkunde handiagoa emateko asmoz, udalerrri osoan zehar bandoa jartzea.

Nerea zinegotziak hitza hartu eta aurreratu du alde bozkatuko dutela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

5.- Bases para el sorteo de viviendas en alquiler social.

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, vivienda, medio ambiente y movilidad:

Primero.- Aprobar las bases de la convocatoria para la adjudicación de viviendas públicas en régimen de alquiler social situadas en el portal 4 de Aiotzategi Kalea.

Segundo.- Publicar las Bases en el B.O.G, en el Tablón de anuncio municipal y en el diario o diarios de mayor difusión o mayor circulación del territorio, ampliando el plazo de presentación de solicitudes hasta el 31 de enero de 2020.

Tercero.- Con el fin de darle mayor difusión, colocar un Bando por todo el municipio.

La concejala Nerea toma la palabra y adelanta que votarán a favor.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

6.- Astigarraga-Hernani eskola kirola eredu.

Alkateak kirola, jarduera fisikoa eta gazteria batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Berrestea Astigarraga-Hernani eskola kirola eredu.

Bigarrena.- Alkateari berrespen adierazpena sinatzeko ahalmena ematea.

Alkateak azaldu du sei bat urte direla bi udalak eskola kirola eredu honekin hasi zirela, baina gaia formalizatu gabe zegoela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

7.- Astigarragako Udalak eraso matxisten aurrean jarduteko eta erantzuteko tokiko protokoloa

Alkateak berdintasun eta partaidetza batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Onartzea Eraso matxisten aurrean erantzuteko Astigarragako Udalaren protokoloa.

Alkateak azaldu du dokumentua hainbat eragileek (politikariek, udal langileek, herriko eragileek) landu dutela, eta erabili behar ez izatea espero duten arren, beharrezkoa zela egitea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

Jon Arregi zinegotziak pleno aretotik atera da.

6.- Modelo de deporte escolar de Astigarraga-Hernani.

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión dedeporte, actividad física y juventud :

Primero.- Ratificar el modelo de deporte escolar de Astigarraga-Hernani.

Segundo.- Autorizar al Alcalde a la firma de la declaración de ratificación.

El alcalde explica que hace unos seis años los dos ayuntamientos empezaron con este modelo de deporte escolar, pero que el tema estaba sin formalizar.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

7.- Protocolo local de actuación y respuesta del Ayuntamiento de Astigarraga ante las agresiones machistas

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de igualdad y participación:

Primero.- Aprobar el protocolo de respuesta ante agresiones machistas del Ayuntamiento de Astigarraga.

El alcalde explica que el documento ha sido elaborado por diferentes agentes (políticos, trabajadores municipales, agentes locales) y que, aunque esperan que no se utilice, era necesario hacerlo.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

El concejal Jon Arregi abandona el salón de plenos.

8.- EHBildu taldearen mozioa

8.- Moción de EHBildu sobre el día



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunaren ingurukoa.

Alkateak testu hau hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi dugu Euskal Herria feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, bide horren eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartuz:

- 1.- Astigarragako Udal honek, Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa bere egiten du.*
- 2.- Astigarragako Udal honek, eraso matxisten aurrean erantzuteko bere protokoloa eratuko du; era egokian aplikatzeko neurriak hartuko ditu eta koordinaziorako egiturak indartuko ditu.*
- 3.- Astigarragako Udal honek Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean sendotzeko eta indarreko legeria berraztertze konpromisoa hartzeko.*
- 4.- Astigarragako Udal honek, indarkeria matxistari buruz Gipuzkoako Foru Aldundiaren terminologia erabiliko du.*
- 5.- Astigarragako Udal honek herritarrentzako, eta bereziki emakumeentzako, dauden baliabideen gaineko informazioa eskuratzeko bideak erraztuko ditu eta dagokion lurralde mailan, indarkeria matxistaren kontrako zerbitzu-sarearen funtzionamendu egokia, elkarlana eta koordinazioa bultzatuko du, beti ere, kontuan hartuz adin txikikoak eta biktimen seme-alabak.*
- 6.- Astigarragako Udal honek, neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako jabeakuntza jarduerak abiatuko ditu, horiek bermatzeko gune aproposak bermatuta, besteak beste ondorengo gaiak jorratu ahal izateko modu iraunkorrean: autodefentsa feminista, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, amodio erromantikoak, sexualitate libreak, etab.*
- 7.- Astigarragako Udal honek, nerabeei eta gazteei zuzendutako sentsibilizazio eta formazio jarduerak iraunkorrak abiatuko ditu emakume eta gizonen arteko harreman parekideak sustatzeko xedez, zehazki: hezkuntza sexu-afektiboa*

internacional para la eliminación de la violencia machista contra las mujeres.

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente texto:

En este día internacional contra la violencia machista, queremos dar a conocer de una manera firme nuestras reivindicaciones en favor de una Euskal Herria feminista, justa y equitativa, asumiendo, en la construcción de ese camino, los siguientes compromisos:

- 1.- Este Ayuntamiento de Astgarraga, hace suyo el protocolo de respuesta a la violencia machista impulsado por la Marcha Mundial de las Mujeres.*
- 2.- Este Ayuntamiento de Astgarraga, diseñará un protocolo propio de respuesta ante agresiones machistas y tomará las medidas necesarias para su correcta aplicación y reforzará sus estructuras de coordinación.*
- 3.- Este Ayuntamiento de Astgarraga, emplaza a la Diputación Foral de Gipuzkoa y Emakunde para la Igualdad a ampliar las partidas presupuestarias en materia de igualdad entre mujeres y hombres, a reforzar las direcciones de igualdad y los juzgados especializados de forma sostenible y a adoptar el compromiso de revisar la legislación vigente.*
- 4.- Este Ayuntamiento de Astgarraga, utilizará la terminología sobre violencia machista propuesta por la Diputación Foral de Gipuzkoa.*
- 5.- Este Ayuntamiento de Astgarraga, destinará recursos para que la población, y especialmente las mujeres, dispongan de información sobre los recursos existentes. Y, en el nivel territorial que le corresponde, impulsará el correcto funcionamiento, la colaboración y la coordinación de la red de servicios contra la violencia machista, asimismo, teniendo en cuenta las personas menores de edad y las hijas e hijos de las víctimas.*
- 6.- Este Ayuntamiento de Astgarraga, emplaza a garantizar el establecimiento de espacios sostenibles para la puesta en marcha de actividades de empoderamiento dirigidas a niñas, jóvenes y mujeres adultas en temas como las relaciones de pareja y sexo-afectivas, el amor romántico, las sexualidades libres, etc.*
- 7.- Este Ayuntamiento de Astgarraga, emplaza a garantizar / garantizará la puesta en marcha de espacios y procesos educativos y formativos dirigidos a adolescentes y jóvenes para trabajar la*



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

lantzeko, indarkeria matxisten askotariko adierazpenak desnaturalizatzeko, baiezkotasuna lantzeko, maskulinitate ereduak lantzeko, eta, oro har, emakume eta gizonen arteko harremanak berdintasunean.

8.- Astigarragako Udal honek, indarkeria matxista jasan duten emakumeen erreparazio eskubidea lantzeko jarduera iraunkorrak martxan jarriko ditu besteren artean, omenaldiak, zineforumak, bisibilizazio ekimenak (kaleen izenak edo jardunaldiak, kasu), akonpainamendu soziala, etab. Jasoz.

9.- Astigarragako Udal honek, konpromisoa hartzen du mutil gazte eta gizonekin afektibitatea, harremantzeko erak, maskulinitate ereduak, rol sexistak gainditzea eta parekidetasuna bezalako gaiak lantzeko; eta helburu horretarako programak gauzatzeko konpromisoa hartzen du.

10.- Astigarragako Udal honek, nerabe eta 10 urtetik gorako neskenzako autodefentsa feminista tailerrak bermatuko ditu, modu jarraituan eta iraunkorki.

11.- Erakunde honetatik, hau da, Astigarragako Udaletik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko jendarte demokratiko bat eraikitze bide eta tresna nagusia den heinean.

12.- Bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 25aren inguruan deitutako mobilizazioekin, eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezan.

Mikel zinegotziak hartu du hitza eta alde bozkatuko duela adierazi ondoren, komentatu du udal-idazkariarekin hitz egiten zegoela, mozio bezala aurkeztu den arren, testuan adierazpen instituzionala dela jaso baita. Eta gaineratu du adierazpen bezala aurkezten bada ere, berak babestu egingo duela, are gehiago kontuan hartzen bada beste instituzioa batzuetan ezinezkoa izan dela horrelakorik onartzea.

Nerea zinegotziak hitza hartu eta adierazi du adierazpen instituzional bezala hartu nahi bada, bere taldeak ere babestu egingo duela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu da EHBildu taldeak aurkeztutako testua**

educación afectivo sexual, desnaturalizar las múltiples expresiones de las violencias machistas, trabajar el consentimiento afirmativo, los modelos de masculinidad y, en general, las relaciones en igualdad entre mujeres y hombres.

8.- Este Ayuntamiento de Astgarraga, emplaza a garantizar la puesta en marcha de programas sostenidos en el tiempo para trabajar el derecho a la reparación en sus múltiples aspectos como la difusión de la verdad, la indemnización, el acompañamiento social o la garantía de no repetición con acciones como homenajes, cineforums, acciones de visibilización (como nombres de calles, jornadas,...), acompañamiento social, etc.

9.- Este Ayuntamiento de Astgarraga, adopta el compromiso de trabajar específicamente con jóvenes y hombres aspectos como la afectividad, las formas de relacionarse, los modelos de masculinidad, la superación de roles sexistas y la equidad y adopta el compromiso de activar programas dirigidos a tal fin.

10.- Este Ayuntamiento de Astgarraga, garantizará la realización de talleres de autodefensa feminista para adolescentes y niñas a partir de 10 años, de una manera continuada y sostenidos en el tiempo.

11.- Desde esta institución, Ayuntamiento de Astgarraga, reafirmamos nuestro compromiso con la lucha feminista, como vía y herramienta principal para la construcción de una sociedad democrática sin violencias.

12.- Nos adherimos a las movilizaciones del movimiento feminista convocadas entorno al día 25 de noviembre, y hacemos un llamamiento a toda la sociedad para que participe en ellas.

El concejal Mikel toma la palabra y tras manifestar que votará a favor comenta que estaba hablando con la Secretaria Municipal, dado que aunque se ha presentado como moción, en el texto se recoge que es una declaración institucional. Y añade que si se presenta como tal, él también la apoyará, máxime si se tiene en cuenta que en otras instituciones ha sido imposible hacerlo.

La Concejala Nerea toma la palabra y señala que si se quiere tomar como declaración institucional, su grupo también lo apoyará.

A continuación se somete a votación, y se acuerda por unanimidad aprobar el texto presentado por el grupo EHBildu como



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

adierazpen instituzional bezala onartzea.

Jon Arregi zinegotzia bilkurara itzuli da.

9.- EHBildu taldearen mozioa haurren eskubideen aldarrikapenaren egunaren ingurukoa

Alkateak esan du nahi izanez gero mozio hau ere adierazpen instituzional bezala onar daitekeela. Jarraian, testu hau aurkeztu du, onar dadin:

Haurren Eskubideen Aldarrikapena 1959ko azaroaren 20an Nazio Batuen Erakundearen (NBERen) Batzar Nagusiak egindako aldarrikapena da, haurren eskubide unibertsalak finkatuz.

Haurren eskubideak (edo haurtzaroaren eskubideak) jaiotzeagatik bakarrik haur eta nerabeek dituzten eskubideak; utziezinak, berezkoak eta nahitaezkoak direnak haurtzaro on bat izateko dira.

NBERen aldarria da haurrek haurtzaro zorientzua izatea eta Aldarrikapenean aipatzen diren eskubide eta askatasunez gozatzea, beren eta gizartearen mesedetan. Halaber, **gurasoei, gizon-emakumeei nahiz erakunde, tokiko agintaritza eta gobernu nazionalai eskatzen die aipatutako eskubideak aitor ditzatela eta haien alde lan egin dezatela**, legegintzako neurriak eta beste neurri batzuk pixkanaka ezarri, honako printzipio hauen arabera:

1. Berdintasunerako eskubidea, arraza, erlijioa edo nazionalitatea kontuan hartu gabe.
2. Babes berezia jasotzeko eskubidea, fisikoki, mentalki eta sozialki osasuntsu eta libre haz daitezen.
3. Izen bat eta nazionalitate bat izateko eskubidea.
4. Elikadura, etxebizitza eta osasun-arreta egokia izateko eskubidea.
5. Urritu fisiko edo psikikoek hezkuntza eta arreta bereziak jasotzeko eskubidea.
6. Familiak eta gizarteak maitatua eta ulertua izateko eskubidea.
7. Doako hezkuntza baterako eskubidea. Ongi pasatzeko eta jolasteko eskubidea.
8. Arrisku-egoeratan arreta eta laguntza

declaración institucional.

El concejal Jon Arregi se reincorpora a la sesión.

9.- Moción de EHBildu sobre el día de la reivindicación de los derechos de la infancia

El alcalde comenta que de querer esta moción también puede aprobarse como si fuera una declaración institucional. A continuación presenta, para su aprobación, el siguiente texto:

La Declaración de los Derechos del Niño es una declaración de la Asamblea General de la ONU de 20 de noviembre de 1959, que fija los derechos universales de la infancia.

Derechos de los niños, niñas y adolescentes (o de los derechos de la infancia) que tienen éstos sólo por el hecho de nacer; los cuales son irrenunciables, propios y obligatorios para tener una buena infancia.

*La ONU reclama que las/os niñas/os tengan una infancia feliz y que disfruten de los derechos y libertades que se mencionan en la Declaración, en beneficio propio y de la sociedad. Asimismo, **insta a los padres y madres, hombres y mujeres, así como a las instituciones, autoridades locales y gobiernos nacionales, a que reconozcan dichos derechos y trabajen por ellos**, estableciendo progresivamente medidas legislativas y otras medidas, de acuerdo con los siguientes principios:*

- 1º. Derecho a la igualdad, con independencia de su raza, religión o nacionalidad.
- 2º. Derecho a una protección especial para un crecimiento físico, mental y social saludable y libre.
3. Derecho a un nombre y a una nacionalidad.
4. Derecho a una alimentación, vivienda y atención sanitaria adecuada.
5. A la educación y atención especiales de las personas con discapacidad física o psíquica.
6. Derecho a ser amado y comprendido por la familia y la sociedad.
7. Derecho a una educación gratuita. Derecho a la diversión y al juego.
8. A ser los primeros en recibir atención y



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

jasotzen lehenak izateko eskubidea.

9. *Abandonatua eta lanean esplotatua ez izateko eskubidea.*

10. *Munduko pertsona guztien arteko elkartasuna, adiskidetasuna eta justizia sustatzen duen hezkuntza jasotzeko eskubidea.*

Aldarrikapena onartu zenetik igarotako urte hauetan guztietan lorpenak handiak izan arren, adingabeen eskubideak betetzeari dagokionez, oraindik erronka asko eta handiak ditugu guztiok, badugu zereginik.

Euskal Herriko eta, jakina, Astigarragako, haur eta nerabe guztiek dute eskubidea bere herriko haur txoko eta gazteleketan haien autonomia garatzeko eta ondo pasatzeko. Zerbitzu hauek haien espazioak dira eta bertan lagun berriak egin eta hainbat balio lantzen dituzte, jolastu eta dibertitzeaz gain.

Azaroaren 20aren haritik, Astigarragako Udalak konpromisoa hartzen du, batetik, aldarrikapena bere egin eta ezagutzera emateko, eta, bestetik, bere eskumenen baitan lan gogotik egiteko, Astigarragako haur eta nerabeek beren autonomia garatzeko behar diren babes eta baliabideak izan ditzaten.

Alkateak adierazi du egin berri den tokiko gobernu batzarrak gazte plana onartu duela (udal langileek eta herriko gazteek eta eragileek egindako), eta horrek erakusten duela udalaren posizioa.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da EHBildu taldeak aurkeztutako testua adierazpen instituzional bezala onartzea.

10.- EHBildu taldearen mozioa 2019ko euskararen nazioarteko egunaren ingurukoa

Alkateak esan du nahi izanez gero mozio hau ere adierazpen instituzional bezala onar daitekeela. Jarraian, testu hau aurkeztu du, onar dadin:

1) Astigarrar guztiak gonbidatzen ditugu instituzio publikoekin (eta bereziki udalarekin) dituzten harreman guztietan, ahozkoetan zein idatzizkoetan, euskaraz jardun daitezen.

asistencia en situaciones de riesgo.

9. *Derecho a no ser abandonado ni explotado en el trabajo.*

10. *Derecho a recibir una educación que fomente la solidaridad, la concordia y la justicia entre todas las personas del mundo.*

A pesar de los logros conseguidos en todos estos años transcurridos desde la aprobación de la declaración, el cumplimiento de los derechos de las personas menores de edad sigue siendo un reto importante para todas y todos.

Todos los niños, niñas y adolescentes de Euskal Herria y, por supuesto, de Astigarraga, tienen derecho a desarrollar su autonomía y pasarlo bien en las haur-txoko y gaztelekus de su pueblo. Estos servicios son espacios en los que se hacen nuevas/os amigas/os y se trabajan diferentes valores, además de jugar y divertirse.

Con motivo del 20 de noviembre, el Ayuntamiento de Astigarraga se compromete a hacer suya y dar a conocer la reivindicación y a trabajar intensamente en el ámbito de sus competencias para que los niños, niñas y adolescentes de Astigarraga dispongan de los apoyos y recursos necesarios para desarrollar su autonomía.

El alcalde señala que la junta de gobierno local que se acaba de celebrar ha aprobado el plan joven (elaborado por trabajadores/as municipales y la juventud y asociaciones del municipio), lo que demuestra la posición del Ayuntamiento.

A continuación se somete a votación, y se acuerda por unanimidad aprobar el texto presentado por el grupo EHBildu como declaración institucional.

10.- Moción de EHBildu sobre el día internacional del euskara del 2019.

El alcalde comenta que de querer esta moción también puede aprobarse como si fuera una declaración institucional. A continuación presenta, para su aprobación, el siguiente texto:

1) Invitamos a todas/os las/os astigarrarras a que se expresen en euskera en todas sus relaciones, tanto orales como escritas, con las instituciones públicas (y especialmente con el Ayuntamiento).



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

2) Astigartar guztiak gonbidatzen ditugu 2019ko Euskararen Nazioarteko Egunaren harira Astigarragan burutzen diren ekimenetan parte hartzera eta ospakizuna eta aldarrikapena uztartzera.

3) Astigartar guztiak eta herriko eragile eta herritar guztiak gonbidatzen ditugu 2020ko Euskaraldia lantzeko 2020ko urtarriletik aurrera burutuko diren jardueretan parte hartzera.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu da EHBildu taldeak aurkeztutako testua adierazpen instituzional bezala onartzea.**

2) *Invitamos a todas/os las/os astigartarras a participar en las actividades que se lleven a cabo en Astigarraga con motivo del Día Internacional del Euskera 2019 y a combinar la celebración y la reivindicación.*

3) *Invitamos a todas/os las/os astigartarras y a todas/os las/os agentes y ciudadanía del pueblo a participar en las actividades que se desarrollarán a partir de enero de 2020 para trabajar el Euskaraldia 2020.*

A continuación se somete a votación, y **se acuerda por unanimidad aprobar el texto presentado por el grupo EHBildu como declaración institucional.**

11.- EHBildu taldearen mozioa Boliviako kolpe estatua salatzeko

Alkateak azaldu du osoko bilkuraren aurretik oposizioko bozeramaileekin bildu dela eta adostu dutela testu bateratu bat aurkeztea. Jarraian, testu hau aurkeztu du, onar dadin:

Astigarragako Udalak:

- Gogor salatzen du Bolivian ematen ari den estatu kolpea.
- Moralesen kontra altxatu direnei eskubide zibil eta politikoen errespetua eta gatazka negoziazio eta akordioaren bidez konpontzera dei egiten die, eta Estatu Kolpe honen kanpobultzatzaileei injerentzia gelditu eta Boliviako soberania errespetatzea deitzen ditu.
- Bere babesea adierazi nahi die Evo Morales presidenteari eta El Alton eta Bolivia osoan kolpearen kontra mobilizatzen hasi diren herritarrei.
- Herritarrei dei egiten die Estatu kolpe honi aurre egiteko antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzera.
- Boliviako Senatuak azaroaren 23an hartutako erabakia babesten dugu, hain zuzen ere MAS alderdiak eta oposizioko indarrek hauteskundeak berriz egiteko adostutako erabakia.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta mozio bateratua

11.- Moción de EHBildu para denunciar el golpe de Estado de Bolivia.

El alcalde explica que antes de la sesión plenaria se ha reunido con los portavoces de la oposición y han acordado presentar un texto conjunto. A continuación presenta, para su aprobación, el siguiente texto:

El Ayuntamiento de Astigarraga:

- Denuncia duramente el golpe de Estado que se está dando en Bolivia.
- Llama a los que se han alzado contra Morales a respetar los derechos civiles y políticos y resolver el conflicto a través de la negociación y el acuerdo, y llama a los impulsores externos de este golpe de Estado a detener la injerencia y respetar la soberanía boliviana.
- Quiere expresar su apoyo al presidente Evo Morales y a los ciudadanos que han empezado a movilizarse contra el golpe en El Alton y en toda Bolivia.
- Hace un llamamiento a la ciudadanía a participar en las movilizaciones que se organicen para hacer frente a este golpe de Estado.
- Apoyamos la decisión adoptada por el Senado boliviano el 23 de noviembre, concretamente la decisión acordada por el partido Mas y las fuerzas de la oposición de volver a celebrar elecciones.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

aho batez onartu da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba por unanimidad** la moción conjunta.

12.- Informazio, galdera eta eskariak.

a.- zuhaitzak moztea

Jon zinegotziak adierazi du hainbat zuhaitz mozten ari direla Murgiako parkean, eta galdetu du zertan oinarrita hartu den akordio hori.

Alkateak azaldu dio erabakia hartu aurretik gaia teknikoki aztertu dela lorezaintza zerbitzua esleituta duen enpresarekin, baita udal teknikariek ere, eta egoera txarrean zeudenez eta haizeak botatzeko aukera zegoenez, horiek moztea erabaki dela.

b.- Gabonetako argiak.

Udalak herrian Gabonetako argiak jarriko dituen galdetu dio Jon zinegotziak alkateari, eta horrek baietz erantzun dio.

c.- Mihurari buruzko kartelak.

Jon Arregik adierazi du autobus geltokietan norbaitek mihurari buruzko kartelak jarri dituela, eta agian komenigarria litzatekeela prentsa ohar bat bidaltzea.

Alkateak azaldu dio dagoeneko hitz egin dutela kartelak jarri dituen pertsonarekin, eta gaineratu du ohar bat argitaratuko dela webgunean.

d.- Komentua hezkuntzako ekipamendurako.

Nerea zinegotziak adierazi du jakin dutela komentua hezkuntzako ekipamendutzat erabili nahi dela, pribatua izango dela eta hezkuntza eredu berri bat jarri nahi dela; eta alkateari galdetu dio horri buruz informazioa duen, baita horren inguruko gobernu taldearen jarrera zein den.

Alkateak erantzun dio badakiela Hezkuntzarekin hitz egiten daudela, eta hemen ere bilera bat

12.- Información, ruegos y preguntas.

a.- Tala de árboles

El concejal Jon señala que se están talando diversos árboles en el parque de Murgia y pregunta en base a que se ha tomado dicho acuerdo.

El alcalde le explica que antes de tomar la decisión se ha analizado el tema técnicamente con la empresa que tiene adjudicado el servicio de jardinería, así como con los técnicos municipales, y que dado que estaban en malas condiciones y existía la posibilidad de que los tirara el viento, se ha optado por talarlos.

b.- Luces de navidad.

El concejal Jon le pregunta al alcalde si el Ayuntamiento va a poner luces de navidad en el municipio, a lo que éste le contesta que sí.

c.- carteles sobre muérdago.

Jon Arregi señala que en las paradas de los autobuses alguien ha colocado carteles sobre la recogida de muérdago y que a lo mejor sería conveniente enviar una nota de prensa.

El alcalde le explica que ya han hablado con la persona que ha colocado los carteles, y añade que se publicará una nota en la página web.

d.- El convento como equipamiento educativo.

La Concejala Nerea comenta que han tenido conocimiento de que se quiere utilizar el convento como equipamiento educativo, que va a ser privado y que se quiere implantar un nuevo modelo educativo, y le pregunta al Alcalde si tiene información al respecto y cuál es la postura del equipo de gobierno al respecto.

El alcalde le responde que sabe que están



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

eskatu zutela eta esan zitzaieela hirigintza-txostena eskatu behar zutela aztertzeko plangintzaren arabera jartzerik dagoen. Gaineratu du ez dutela asmoa ez babesteko ez oztopatzeko, baina bere taldearentzat lehentasuna duena herri eskola dela.

hablando con Educación y que en el Ayuntamiento también se solicitó una reunión y se les dijo que tenían que pedir un informe urbanístico para analizar si el planeamiento da opción a ponerlos. Añade que no tienen intención ni de protegerlo ni de obstaculizar, pero que para su grupo tiene prioridad la escuela pública.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin nik, Idazkariak, honako agiria egin dut

Astigarragan, 2019ko azaroaren 26an.

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal-idazkaria